

34 urteko langile bat hil da Garesen

Señorio de Sarria enpresan izan da istripua; garabi batek azpian harrapatu du behargina

ERREDAKZIOA.

Iruñea

Langile bat hil zen atzo Garesen (Nafarroa). Lehen hipotesien arabera, garabi batek harrapatu zuen. Señorio de Sarria enpresan gertatu zen ezbeharra, upategietatik kanpo. Alabaina, hildakoa -J. G. Z. gizona- ez zen enpresa horretako behargina, Tegasa garabi enpresakoa baizik. 34 urte zituen, eta Errioxako Albelda de Iregua herrikoa zen.

Nafarroako Gobernuak jakitera eman duenez, larrialdi zerbitzuek 13:15 inguruan jaso zuten ezbeharraren berri. Cordovillako hiru suhiltzaile talde joan ziren langilea makinatik askatzeko. Anbulantzia bat ere joan zen, baina hura iritsi eta berehala hil zen behargina. Nafarroako auzitegi medikuntzako erakundera eraman zuten gorpua, autopsia egin eta heriotzaren zergatiak argitzeko.